



KARLOS SANTAMARIA
(1909-1997)

Egilea:

XABIER ANDONEGI SANTAMARIA

KARLOS SANTAMARIA

Karlos Santamaria asko izan direla esan izan da, Santamaria irakaslea, Santamaria zientzialaria, Santamaria bakezalea, Santamaria pertsonalista, Santamaria politikoa, Santamaria euskaltzalea, esparru askotan aritu zen pertsona baikenuen. Halaxe da. Bere bizitzari begirada emanaz gero, harrigarria da ikustea zein emankorra izan zen gizon tamainaz txiki eta kemenez izugarri hau. Ildo horretatik, askok izan dute Santamaria hau edo bestea nabarmentzeko joera, esparru jakin batean ezagutu zutelako ala,

sinpleki, lan jakin bat besteak baino garrantzizkoagotzat jotzen dutelako. Nire ustez, joera honek, ulergarria izanik ere, Santamariaren oinarritzko ezaugarri bat ezkuta lezake, hots, Santamariaren bidea koherentziak gidatua dela edo, bestela esanda, Santamaria horiek guztiek Santamaria bakar bat egiten dutela. Izan ere, Santamaria zientzialaria, bakezalea baita; eta bakezalea, Santamaria pertsonalista; eta pertsonalista, Santamaria euskaltzalea; eta euskaltzalea, politikoa.

1



Karlos Santamaria (1909-1997).

BIZITZA

Donostiako Easo kalean jaio zen Karlos Santamaria, «Izeta esaten zioten etxean», 1909ko abenduaren 25ean. Aitak, Burgosekoa, eta amak, nafarra, Aranokoa, Balmasedan ezagutu omen zuten elkar, aita bertako prokuradore zela; ama, berriz, maistra. Ezkonduta Bilbora joan omen ziren bizitzera. Seme-alaba zaharrenak hantxe jaio eta, ondoren, Bilbotik Donostiara etorri ziren, «ze amak beti Donostiara etorri nahi zuen», eta bertan bi seme gazteenak izan zituzten, tartean Karlos, gazteena.



Blanca emaztea eta Karlos. Ezagutzen dugunok ongi dakigu emakume honen garrantziaren berri Santamariaren jardunetan.



Donostiako Artzain Oneko plazan eman zuen Santamaria familiak bere bizitzaren zatirik handiena.

«Zortzi edo bederatzi izan ginen anai-arrebak, ez dakit ondo. Beno, anaia zaharrenak ez nituen ezagutu, orduan haurren hilkortasuna handia zen eta batzuk txikitan hil ziren» gogoratu zuen Karlosek 1994an emandako elkarrizketa batean.



Karlos amarekin.

Bizitza osoa Donostian eman zuen, zatirik handiena Artzain Onaren plazako etxean. 1935ean Blanca Ibarbururekin ezkondu zen eta hamar seme-alaba izan zituen. Haietatik bi, Javier eta Jose Mari, gazte hil zitzaion bikoteari eta, jakina, haien heriotzak izan ziren bizitza honek emandako kolperik latzenak.

Matematikaria zen Karlos Santamaria eta bere lanbideak irakasle eta Donostiako Meteorologia Behatokiko zuzendari izan ziren. Hauekin batera makina bat jarduera, ondoren ikusiko dugun bezala.

Hamar seme-alaba izan zituzten Karlosek eta Blancak. Horietako bi, Jose Mari eta Javier (goian, lehena ezkerretan eta hirugarrena), gazte hil ziren.



SANTAMARIA, HEZKUNTZA ETA ZIENTZIA

Familiako txikiena izanik, dena etxean ikasi omen zuen Karlosek, irakurtzen, idazten, eta abar. Aita, ama, anai-arrebak, denak omen zituen maisu-maistrak eta, horrela, hamahiru urte izan arte ez zen eskolara joan, eta, orduan, azterketak egitera baino ez. Ondoren batxilergoa Donostiako Marianistetan egin eta Madril aldera joan zen Zientzia Zehatzak egitera. Haiek bukatu eta tesia prestatzeari ekin zion Rey Pastor izen handiko matematikariarekin.

Rey Pastor Argentinan zebilen irakasle, garai hartan ez baitzegoen Ingeniaritza-fakultaterik Madrilan, baina urtero joaten zen Madrilera. Behin Rey Pastorrek zera esan omen zion Santamariari: «baina ez da posible zu Donostian izatea, ez duzue bibliotekarik, ez duzue ezer, ez da posible ezer egitea». Orduan, Santamariak Donostian zerbait sortu behar zela esan zion eta lanean hasi zen. Rey Pastorrek gutun bat idatzi zion Eusko Ikaskuntzari eta, horrela, Eusko Ikaskuntzaren babespean, *Centro de Estudios Científicos* sortu zuen Karlos Santamariak 1932an.



Karlos Santamaria, EHU-ak *Doctor Honoris Causa* egin zuenean.

Horixe izan zen Santamariak sortutako lehenengo irakaskuntza-gunea. Ondoren, 1939an, Javier Elosegirekin batera, *Centro de Estudios Superiores (CES)* sortu zuen; 1956an *Escuela Superior Técnica de Empresariales (ESTE) eta EUTG* («izen hau neuk asmatu nuen, hasieran *EUG, Estudios Universitarios de Guipuzcoa*, T gero jarri zioten» diosku Santamariak); 1964an, irakasle euskaldunak ere egon zitezten, *Andereñoen Eskola Jazinto Setien* eta Jose Miguel Zumalaberekin batera, eta 60. hamarkadan, Mitxelena, Zumalabe bera eta Lasarterekin batera *Santo Tomas Lizeoa*, bigarren hezkuntzako lehenengo ikastola.

Euskal Herriko Unibertsitatearen sorreran ere nabarmena izan zen Karlos Santamariaren parte-hartzea. Gipuzkoako Unibertsitateko batzorde eragilean izan zen 1964an, lau urte geroago Zuzenbide fakultatea zabaldu zen Donostian, eta, 1967an, Donostiako Petrokimika Eskola sortzeko komisioren buru ere izan zen. Unibertsitatearen inguruan bazuen amets bat, Euskal Herriko Unibertsitatea baino, Euskal Unibertsitatea. *Jakin* aldizkarian horrelaxe azaldu zuen 1977an:

Humanitate osoak, mendez mende, belaunik belaun, bildu duen jakintza

guztia deitzen dugu kultura orokorra. Zientzia, ederti, eta teknika guztien multzo hori ez da herri jakin baten etorkia, Gizadi osoarena baizik.

Kultura berezia, haatik, herri jakin baten kultura da. Haren hizkuntza, haren bizi-moldeak, haren ohiturak eta usteak. Herri honek munduaz eta biziaz duen interpretazio berezia.

(...) Irakurle argi eta zorrotzak erraz ulertuko du zeinen diferentzia handia dagoen, Euskal Herriko Unibertsitatea eta euskal unibertsitatea direlakoan artean.

Lehenengoak kultura unibertsala emango dio gure herriari, erdaraz bada ere. Alde horretatik, guztiz beharrezkoa dugu gaur egun eta –euskara dagoen egoeran– luzaro ere ukanen dugu beharrezko. Etor bedi, beraz, lehen bait lehen, Euskal Herriko Unibertsitatea, unibertsitate ona, modernoa eta ongi antolatuta izatekotan.

Baina euskal kultura diglosiazko egoeratik ateratzeko, euskal unibertsitate bat behar dugu, euskal kultura euskaraz irakats dezana eta haren alma mater izan dadina. Beste arazo bat da hau ere, eta garrantzi handikoa.

Euskal Herriko irakaskuntzaren erdigunean izandako pertsona dugu Karlos Santamaria, bistan da, eta horren testigantza utzi nahi izan zuen Euskal Herriko Unibertsitateak

Santamaria *Doctor Honoris Causa* egin zuenean. Pello Salaburu garaiko errektorearen hitzak dira hauek: «Euskal Herriko unibertsitatea egin bazen, jende askoren ahaleginei esker izan zen, baina bereziki Karlos Santamariaren eta bera bezalako beste aitzindari gutxi batzuen ahaleginei esker».

Donostiar asko izan dira Karlos Santamariaren ikasle. Benetan irakasle fina bide zen, laudorio ugari entzun ditugu eta ikasle izan zituenengatik. Esaterako Koldo Izagirrek berriki emandako hitzaldi batean zera zioen gutxi gorabehera: «zer ote zuen gizon horrek ikasgelan sartu eta ni bezalako hamaika astakilo ordu osoan esaten zuenari adi eta isilik egonarazteko».

Baina donostiar asko ez ezik, izan zituen ikasle donostiar ez ziren beste batzuk ere. Hauen artean, Juan Carlos erregea bera, printzea zenean noski.

Juan Carlos Donostian bizi izan zen umetan eta Miramongo jauregian berarentzat eta beste ume aristokratiko batzuentzat kolegio txiki bat antolatu zutenean, Santamaria deitu zuten eskolak eman zituan. Printzeak gustuko izan behar zuen irakaslea, behin edo behin zera esan omen zion eta: «A usted, cuando sea rey, lo haré ministro». Urte asko geroago,



Zientzia Zehatzetan Doktore izan zen. Doktoradutza lortu zuen eguneko argazkia da hau.

Santamaria Eusko Kontseiluko partaide zela, erregeak audientzia eskaini zion beste kontseilariekin batera, eta hantxe garai hartakoaz hitz egiteko parada izan zutela jasota dago orduango kroniketan.

Donostiako meteorologia zentzoko zuzendari izan zela ere aipatu dugu. Bada honekin lotuta datu bitxi bat. Garai hartan meteorologia airearen ejertzitoaren barruan zegoen eta, bide batez, meteorologia zentroetako zuzendariei kargu militarra zegokien, *militar asimilado* esaten zitzaiona. Honela, soldaduzkarik egin ez zuena Espainiako ejertzitoko militarra zen, ez dakit zein kargurekin. Egia, ez zuen inoiz uniformea jantzi, eduki ere ez zeukala uste dut, ejertzitoak bidalitako

oihalekin uniformeak egin behar, Blancak, emazteak, tindatu eta alabentzat berokiak egin zituen eta. Behin oposizio batzuetako tribunalera joan behar izan zuen Santamariak, eta uniformerik ez. Joan zen, paisanoz jantzita noski, eta han zeuden beste meteorologo guztiak uniforme ederrak jantzita topatu zituen. Jakina, garai hartan militar izatea zer edo zer bazen eta uniformedunek bazituzten pribilejio franko. Hantxe aritu zen Santamaria epai-mahaiko presidenteari azaltzen zergatik ez zuen uniformerik jantzi, berak ez zuela karrera militarrik egin eta abar. Presidenteak, azkenean, ongi hartu omen zizkion Santamariari argudioak.

Bere jarduerak zirela eta, ejertzitoak pare bat espediente ere ireki omen zizkion. Horrela azaldu zuen 1998an Jose Ramón Recaldek *El Ciervo* aldizkarian: «Duela urte batzuk, asko, egunkarian esan nuen Karlos Santamaria nire maisu sokratikoa izan zela. Omenaldi gorena eskaintzen niolakoan, arazo berriak sortu nizkion, Estatutik nahiz Elizatik bere aurka zetorren gogo inkisitorialari gehitu beharrekoak. Ejertzitotik zetozen orduangoak. Metereologia Behatokiko zuzendari izateak militartu egiten zuen eta, beraz, diziplina militarren azpian jartzen. Arazoak izan zituen nire erruz, ideia marxistetara joandako ni

bezalako gazteengan eragin gaiztoa izateagatik salatu baitzuten».

Hitz hauen haritik, esan behar Santamariak sarritan proiektuak bertan behera utzi edo aldatu behar izan zituela, Estatuaren eraginez batzuetan, Vatikanoren eraginez bestetan. Baina, aldi berean, Santamaria ez zen inoiz legeen mugetatik gehiegi urrundu. Trebezia izugarria izan zuen egoera itogarri hartan arnas hartzeko eta bere asmoak aurrera eramateko.

Zientzialaria zen aldetik, egin zituen ekarpen interesgarriak. Matematikan, espazio abstrakturen axiomatikaren inguruko lana eta bere lehen tesia, *La noción de la separación como fundamento lógico-formal de la topología*, dira, besteak beste, aipagai.

Bestalde, aipatzekoa da matematika oinarri kultural gisa jartzen zuela. *Matematika berria* deitu zion bidea proposatu zuen, matematikak beste arlo kulturei loturik egon behar zuela esanez, hark duen hoztasuna nolabait galtzeko moduan.

Bide horretatik, teknika eta honen zentzu moralari buruz aritu zen. Zioenez, aurrerapen teknikoak ez ziren aurrerapen haien erabilpenean morala ahaztuz gero. Bere azken liburuak, *La amenaza de guerra nuclear*, horixe du ardatz.

SANTAMARIA PERTSONALISTA

Aipatutako liburu horretaz gain, Santamariak beste saiakera batzuk ere idatzi zituen, besteak beste, *La iglesia hace política, Maritain y la polémica del bien común, Espiritualidad y política*, baina esan beharra dago egunkarietan eta aldizkarietan argitaratutako ehunka artikulua izan zirela bere pentsamendua zabaltzeko gehienetan erabili zuen bidea. Jakina da egunkariak eta aldizkariak direla gizartera iristeko modurik zuzenena, eta Santamaria ederki baliatu zen haietaz. Horrela, hainbat argitalpenetan topatuko ditugu bere lanak, euskaraz, frantsesez zein gazteleraz idatziak, gai honi zein besteari buruzkoak. Baina, hau honela izanagatik ere, ez dezala inork pentsa Karlos Santamariaren artikulua horiek jarraipenik gabeko orrialde solteak direnik. Aitzitik, idazle eta pentsalari hau lan borobil bat gauzatzeko gai izan zen idazten eman zuen hirurogei urte luze haietan zehar. Izan ere, hauxe da, nire ustez, Karlos Santamariaren meritu handienetariko bat, lortzea artikulua horiek guztiek, bai gaurkotasuna galdu duten idatziek, bai egungo egoeraren analisirako baliagarri izaten jarraitzen dutenek, bide guztiz koherentea osatzea. Eta bide guztiz koherente horretan,

koherentzia bera eta osotasuna ziurtatzen, topatuko dugu behin eta berriz, lekua inoiz galdu gabe, Santamariaren pentsamenduaren iparra: pertsona.

Karlos Santamariak pertsonalista kristautzat zuen bere burua eta, ondorioz, korrante filosofiko horrek eskaini zizkion oinarrietatik begiratu zuen mundua. Orrialde hauen lana ez da pertsonalismoaren azterketarik egitea baina beharrezkoa zaigu hitz gutxitan, erraza ez bada ere, ildo nagusia aipatzea, Karlos Santamariaren pentsamendura gerturatuko bagara. Esan liteke pertsonalistentzat pertsona dela munduaren giltza. Mounierren arabera, zera esaten duen kontzeptzio moralak da: pertsonak lehentasun osoa eduki behar du exigentzia materialen eta gizartearen ikuspegi materialak inposatzen dituen instituzioen aurrean.



Hau esanda, pertsonalistek pertsonari buruz duten kontzeptua behar dugu esaldi horri mamia ateratzeko. Karlos Santamariak berak ematen digu, *Jakin* aldizkarian idatzitako artikuluko batean, bide hori jorrazteko aukera:

Pertsonalistek indibiduo eta pertsonaren arteko bereizketa oinarritzko bat egiten dute. Indibiduo, gizartearen zati bat da eta, alde honetatik, gizartearen errealitateak kondizionatuta dago. Pertsona, berriz, ez da gizartearen zati bat, zeharo handiagoa den zerbait baizik: izaki librea, bere buruaren jabea, transzendentea; pentsamendu, zientzia, teknika, ekintza eta abarren kreaizailea.



Frantziako Ohorezko legioa jaso zuen unea, Monseñor Feltin-en eskutik.

Nahiz eta gauzarik txikienetan izan, kreaizailea da pertsona; gauza askoren sustrai eta hasiera; beti miragarri eta harrigarria. Pertsonarengandik abiatzen baitira historiaren bide guztiak. Pertsonaren barnean dago existentziaren enigmarik handiena. Hitz batean: pertsonalisten ikuspuntutik, pertsona ez da gizartearen zati bat, osotasun eta totaltasun bat baizik(...) aitortu behar dut pertsonalismoa ez dela zientzia bat, sistema bat, teoria bat, ideologia bat, baizik sinesmen bat, fede bat pertsonaren existentziaren gainean(...) pertsonalista kristauek defendatzen duten pertsonaren ulermena transzendentea da. Sineste bat, fede bat eskatzen du pertsonalismoak, pertsonaren errealitatea ezagutzeko.

Santamariaren pentsamenduaren oinarri dira lerrook. Hauen bitartez ulertu behar da bere jarrera filosofikoa eta, esango nuke, baita bere eguneroko jarrera ere. Izan ere, Santamaria alderdi guztietatik begirune eta miresmen handiz tratatua izan zen beti, eta horren arrazoia haxe besterik ez da: berak pertsona guztiak begirune handiz tratatu izana.

SANTAMARIA BAKEZALEA

Bakegintzan lan eskerga egindako pertsona dugu Karlos Santamaria. Makina bat lerro idatzi ditu bakearen kezka inguruan eta makina bat ekintzatan parte hartu du. Aipatzekoa da «Pax Christi» mugimendu bakezalearen nazioarteko idazkari izan zela berrogeigarren hamarkadan. Postu hori betetzeko hilabetero Paris aldera joaten zen eta, jakina, egundoko aukera izan zen hori Santamariarentzat, diktaduraren kontrolik gabe, jende askorekin harremanak izateko modua izan baitzuen, tartean Agirre lehendakariarekin. Parisko intelektuaren artean ere bere lekua egin zuen, Estatu Frantziarrak Ohorezko Legioa eman zion, eta Parisko Intelektuaren Astean askotan parte hartu zuen, sarritan bakea mintzagai.

«Nik ez dut uste kanoiak eta bonbak herrien zuzentasuna eta zorientasuna ekarriko dituztenik(...) ez dut uste Ebanjelioaren erantzuna fusila hartu eta mendira ateratzea izan daitekeenik» dio Santamariak. Borroka armatuaren aurkako iritzi garbia hauxe, baina besterik gabe aurkeztua bada, iritzi erraza ere bai. Alabaina, urruti dago Santamaria erosokerietatik: «Biolentzia guztien kondenak status

quo delakoaren alde jokatzeko du, pobreak eta mirabeak ahalduen eskuetan jartzen ditu eta». Beraz, fusilak ez du balio, baina bidegabekeriaren aurrean geldirik egoteak ere ez. Hauxe azaltzen du *Pax Christi et l'engagement temporel pour la paix* liburuan:

Errealitatean, pertsona, hots, gutako bakoitzak, ez du egoera garbien aurrean aukeratu behar. Aukeran ez ditu, alde batetik, Justizia, Egia eta Bakea, eta, bestetik, Bidegabekeria, Gezurra eta Bortizkeria. Aitzitik, aukeran dauden egoerak ez dira garbiak izaten, eta haietan elkarrekin nahastuta daude, batzuetan askapenik ez duten korapiloetan, Justizia eta Bidegabekeria, Egia eta Gezurra, Bakea eta Bortizkeria.



Pax Christik antolatutako txango bat.

Karlos Santamariaren ustez, bakeak justiziaren emaitza izan behar du eta ez alderantziz. Gainera, bakea guztion lana dela uste du, kontzientzia berri baten eskutik lortuko dela eta horretarako guztion parte-hartzea eskatzen du:

Bekatuaren ala moral kolektibo baten ezintasunaren aurrean ez dago bat-bateko konponbiderik. Ez sinestu Bake magikoetan(...) Bekatu kolektiboaren aurka neurri autokritikoak ez dira nahikoak; beharrezkoa da buruz buruko akzio bat, pertsonaz pertsona. Eta horra gutako bakoitzaren ardura(...) bakearen alde lan egiteko aukera bada beti, baina ez balego ere, gure lana alferrikakoa dela sinestuko bagenu ere, bakearen alde aritzera behartuta geundeke, edonola ere.

Santamariaren ustez, benetan onartezina, daukagunarekin konformatzea da, beraz. Eta nola gauzatu, bada, ez konformatze hori? Ez asmo utopikoekin behintzat:

Arraza eta klaseen arteko borroka Historiaren motorra izan direnez, alferrik da hauen desagertzea eskatzea, mugimendu historikoa geldiarazi nahia bezain alferrikakoa. Aitzitik, edertasun ilusioak alde batera utzi eta, praktika sozial eta politikorako, beste kontzeptu bat onartu beharko genuke, apalagoa eta, aldi berean, askoz errealistagoa.

Bakegintza, beraz, bortizkeriarik gabe eman litezkeen pauso txikien bitartez egiten da Karlos Santamariaren iritziz. Eta esan liteke Santamariak ikuspegi hau edozein akzio aurrera eramateko egin zuela bere: Zer egin liteke? huraxe egingo dugu.

1 1



Pax Christiko zenbait kide. Bakearen aldeko nazioarteko erakunde honetan, Santamaria idazkari nagusi izan zen.

SANTAMARIA ETA DONOSTIAKO SOLASALDI KATOLIKO INTERNAZIONALAK

«Karlos Santamariaren lanetatik ez dakit historiak zer nabarmenduko duen. Bere-bere obra berezia Donostiako Solasaldi Katolikoak edo “Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián” izenekoa dateke» idatzi du Joan Mari Torrealdaik. Halaxe da, intelektual katolikoen nazioarteko topaketa nagusienak izatera iritsi baitziren solasaldi haiek eta, askoren ustez, Vatikanoko II.ren atarikoak ere izan ziren.

Historia pittin bat eginez, esan behar Donostiako solasaldiak 1934an izan zutela hasiera, baina gerra zibila zela-eta urte baten soilik ospatu ahal izan zirela. Ondoren, 1947an, «Conversaciones Católicas Internacionales» bezala eratu ziren eta halaxe iraun zuten 1959ra arte. Hamabi urte hauetan Santamaria izan zen solasaldien idazkaria eta, Joseba Intxausti Donostiako Solasaldi Katoliko Internazionaleri buruzko ikerketaren egileak esan duen bezala, baita *alma mater* eta arima.



Pio XII. Aita Santuarekin. Santamaria ezker aldean lehena da.



Donostiako Solasaldi Katolikoek garrantzi handia izan zuten garaian. Jende asko bildu zen urtez urte, eta katolizismoaren irekitzean eragin handia izan zuten.

Garaiko Espainia zer zen kontuan hartuta, ez zen erraza izan behar solasaldi haiek aurrera eramatea, «nola lortzen zuen misterio itzela zen eta da niretzat» idatzi du Joan Gomis solasaldi haietako partaideak. Hala ere, esan bezala, aurrera eraman zituen Santamariak. «Gobernuari hemen askatasuna bazegoela, irudia ematea kanpora, interesatzen zitzaien; eta guri, kanpoko munduarekin harremanean sartzea barrukoak interesatzen zitzaigun» esan zuen elkarrizketa batean Santamariak, eta egoera horretaz baliatuta eraman bide zituen aurrera solasaldi horiek.

Solasaldietako gaiak gaukortasun handikoak izan ziren beti, hala nola, Giza Eskubideak, Iritzi-gidariak eta nazioartea, Batasun europarra, Abertzaletasuna, Kristautasun



denborala, Elizako laikoen lekua, Obedientzia eta askatasuna, Eliza eta politika, Elizaren aldakortasuna, etab. Solaskideak, berriz, joera ezberdinetakoak, korrante tradizionalekoak zein irekitasunaren aldekoak. Azken hauek, noski, aire berriak sartu zituzten Espainiako katolizismoan, ez beti ongi ikusiak. Joera berri horien sinboloa, Joseba Intxaustik berak adierazten duen bezala, Maritain filosofo frantziarra izan zen. Maritain ez zen Donostiara

etorri, baina parte-hartzaileen artean Maritain-zale asko izan ziren. Santamaria bera ere halakoa zen: «Ni Maritainzalea izan naiz, gauza askotan nire heziera frantsesa da. Hasiera batean Maritain eta Mounierrengandik asko ikasi nuen». Joxe Azurmendik, zalantzarik gabe Santamariaren pentsamendua hobekien ezagutzen duenak, dioenez, Santamariaren lan filosofikoaren parte handi bat Maritainen pentsamenduaren azalpena izan da, edo Maritainen gogoeta gure egoerara ekarri eta egokitzeko ahalegina. Antza denez, Santamariak, luze lan egin eta gero, Maritain Donostiara etortzeko baimenak lortu zituen, baina filosofo frantziarrak ez zuen etorri nahi izan. Ezagun den bezala, Maritainek ez zuen Franco gehiegi maite eta izan liteke hori etorri nahi ezaren arrazoia. Dena den, ziur nago Karlos Santamariak pena ederra hartuko zuela bere maisuaren ezetza jaso zuenean.

Oihartzun handia izan zuten, beraz, Donostiako Solasaldi Internazionalek. Egunkari eta aldizkari garrantzitsuetan eman zuten haien berri, Espainia, Frantzia, Italia, Alemania eta abarretatik etorritako korrespondentsalen bitartez. «Ez dago dudarik Donostian *pentsamendu katolikoa* aberastu egin zela, eta korrante irekienak bere

barne-trinkotasunean irabazi egin zuela, koherentzia eta hemen sortutako harremanetan» idatzi du Intxaustik. J. L. Arangurennek, berriz: «1949an joan nintzen lehen aldiz Donostiako Solasaldi Internazionaletara. Karlos Santamariak aurrera zeraman ekintza zen hau eta katolizismo espainiarrarentzat garrantzi itzela izan zuen. Hartu kontuan garai hura arte Espainia tibetizazio berri batean bizi izan zela». Karlos Santamariak berak ere garatu duen ekintza kulturalik garrantzitsuenak dela aitortu zuen.

Esan bezala, 1959 urtean amaitu ziren Donostiako Solasaldi Katolikoak, arazoak pilatzen joan baitziren. «Behin *Santo Ofizio*-tik deitu ninduten. Orduan Ottovani zen hango buru, oso pertsona maitagarria. “En San Sebastián estás echando agua al buen vino español”, esan zidan maitekiro». Adierazgarria, esaldia. Beraz, Nuntzioaren susmo eta bekozkoa, garaiko giro intelektualaren aldakuntza, Erromaren eskakizun batzuen gehiegikeria, eta lanaren nekea, ordura arteko barne-jokaera irekiagoaren haustura; hauek izan ziren, Santamariaren esanetan, Solasaldiak mozteko arrazoiak. Halaxe jasotzen du, behintzat, atal honen iturri nagusi izandako Joseba Intxaustik.

SANTAMARIA POLITIKOA

«Ni ez naiz politikoa eta karguetan sartu banaiz, nire ideiekin kontsekuente izateko izan da, nire ideietan benetan sinesten dudala erakusteko». Abertzalea izan zen Karlos Santamaria, lehenengo Euzko Alderdi Jeltzalean eta, ondoren, Euzko Alkartasuna alderdian. Oinarri abertzale horretatik politikaren munduan bere pausoak eman zituen eta, horrela, Euzko Kontseilu Nagusiko Hezkuntza-kontseilari izan zen 1978tik

1980ra. Urte haietako lana honela laburbildu zuen handik urte batzuetara emandako elkarrizketa batean: «Nik bi eginbehar nituen. Alde batetik, ikastoletako komenioa prestatu nuen. Batzuek estatalizatu egin nahi zituzten ikastolak. Nire lana ikastolak salbatzea izan zen. Orain arazo asko dago ikastoletan. Baina hor daude, bizirik! Eta, bestetik, elebitasunaren dekretua. Dekretu horri esker, euskararen irakasle eta katedratikoak izendatu ziren, eta beste gauza batzuk lortu ziren».

15



Euskal Kontseilu Orokorrean Hezkuntza kontseilari izan zen, Ramon Rubial zena buru zelarik.

Santamariak ez zuen, aipatu berri bezala, bere burua politikotzat. Badira batzuk iritzi honekin bat ez datozenak. Jose Ramon Recalde, esaterako, Santamaria beti politikoa izan dela dio. Hala ere, Recalde aitortzen du ez duela Santamaria alderdi baten kide bezala gogoratuko, are gutxiago *militante* bezala, «ziurrenik nolabaiteko errezeloa sortuko liokeen hitza». Honetan ez dabil batere oker Recalde jauna, hauxe baitio, gai honi buruz, Santamariak: «Alderdi gehienetan jauntxo-talde bat dago. Talde horrek agintzen du izatez, eta beste guztiek obeditu eta lagundu. Politika egiteko beste modurik ez dago gaurko egunean. Ni guztiz independientea naiz. Nire buruaren jabe naiz beti, eta

honela jarraitu nahi dut». Jakina, pertsonalista batek ezin ditu alderdi politikoak bestela ikusi, ezin du bere burua mundu horretan kokatu. Hala eta guztiz ere, nire ustez, alde batetik Recalde arrazoi du esaten duenean Santamaria ez zela inoiz militante izan baina bai politiko, bere jardueraren zati garrantzitsu bat politikoa izan baitzen hori ukatzeko. Baina, bestalde, esan liteke Karlos Santamaria euskal politikara iritsi bazen, kezka kulturalak bultzaturik iritsi zela. Izan ere, bere mundua kulturala izan zen beti, eta politikarako jauzia berak azaldu bezala gertatu zelakoan nago, bere ideiekin kontsekuente izateko. Eta bere ideiak abertzaleak ziren, batez ere, euskal kulturari zion atxikimenduaren ondorioz.



Espainiako erregea, printze zenean, ikasle izan zuen Santamariak. Urte batzuen buruan, berriro ikusi zuten elkar, argazki honek azaltzen duen bezala.

SANTAMARIA EUSKALTZALEA

«Karlos Santamaria euskaltzaletu zenean, euskal kulturak jaso zezakeen oparirik ederrena jaso zuen» esan du Joxe Azurmendik. Omenaldi polita, Santamariak berak asko miresten zuen intelektualak esana, gainera.

Santamaria gaztetan euskaltzaletu zen. Errepublikara garaian, artean hogeitau urte inguru zituela, euskara ikasten hasi zen. Irakasle Toribio Alzaga donostiar idazle handia izan zuen. Gerra ondoren ere jarraitu zuen euskara ikaste horretan, orduan Maria Dolores Agirre euskaltzalearekin. Euskaldun berria zen, beraz, eta

euskaldun berri asko bezala, zailtasunak zituen jarioz hitz egiteko. «Badira oso ondo mintzatzen diren euskaldun berriak, baina hori ez da nire kasua. Hala ere, asko irakurri dut euskaraz, eta idatzi ere bai. Niretzat errazagoa da euskaraz idaztea mintzatzea baino» esan zuen *Egunkariari* 1991n eskainitako elkarrizketa batean.

Francoren garaian euskara ikastea ez zen, noski, ohikoa. Garaiko gizarteak ez zuen, ezta urrundik ere, euskararen aldeko presiorik egiten. Aitzitik, ezaguna da ohikoagoa izan

17



Santamaria eta Zumalabe, lagun minak.

Alor askotan ibilitako pertsona genuen, bere bizitzan zehar sari ugari jasotakoa. Hona hemen Euskaltzaindiaren domina, Gipuzkoakoa, Donostiakoa, Frantziako Ohorezko Legioa eta Ikastolek emandako makila.

zela, erdaldunak euskaldun berritu baino, euskaldunak erdalduntzea. Beraz, Santamaria bere inguruan nagusi zen korrontearen aurka joan zen. Eta zerk bultzatu zuen, bada, donostiar hau horretara?

Izango zen, alde batetik, amaren hizkuntza berreskuratu nahia. Baita bere herriko hizkuntza hitz egin nahia ere. Baina esango nuke euskararen garrantziaz jabetuta zegoelako ere ikasi zuela Santamariak euskara.

Batzuek euskarak mundu zabalean ez duela ezertarako balio esaten dute, eta hobe genukeela ingelesa ala alemana ikasiko bagenu. Hauek, munduko hiritar ala unibertsalistatzat dute beren burua.

Bada, Santamariak zera erantzuten die hauei: «Euskara landu eta erabiltzea gizakultura unibertsala aberastea da».



Euskal Herriko Unibertsitate artean jaio berriaren ekitaldi batean, Barandiaran, Aizarna eta Blancarekin batera.

Alegia, kultura propioak kultura unibertsalaren parte direla, eta haien aurkako mesprezuak, kultura unibertsalaren aurkako jarrerak direla, eta ez aldekoak. Hau da, urrutiago joanda, euskal kulturarik gabeko, euskararik gabeko Euskal Herria, kultura propiorik gabeko edozein herri bezalaxe, ez da ezer. Ez da ezer, esango nuke, pertsona ez den gizakia bezalaxe.

Uste dut azken konparaketa hau Santamariak gustura egingo lukeela bere, norberaren kulturak, euskarak, duen garrantzia azaltzen baitu, pertsonak duen garrantziarekin batera. «Hobe izango genuke Euskal Herri guztiz euskaldun bat, nahiz eta askatuta ez izan, euskara betirako galdu duen Euskadi independente bat baino» esan ohi zuen, euskara beste guztiaren ginetik jarriz.



Lagunak. Eserita, Zumalabe.



Beristain, Manuel Lekuona, Aizarna, Barandiaran, Santamariak, Monreal... Guztiak euskararen historiak bihotzean gordeko dituen izenak.



EHUk Doktore egin zuenean lagun ugari bildu ziren bere inguruan, besteak beste, Rekalde, Mari Karmen Garmendia, Jean Haritschelhar...

Baina Santamaria ez zen, euskararen aldeko lan horretan, euskara ikastera mugatu. Garrantzi handiko gauzetan hartu zuen esku. Euskal aldizkarietan esaterako: *Zeruko Argia*-n kolaboratzailea izan zen; *Jakin* aldizkarian parte hartze handia izan zuen; *Euskaldunen Egunkaria* sortzeko talde eragilean ere ibili zen, besteak beste.

Hala ere, aipagarriena ikastolen alde egindako lana da, ezbairik gabe. Santo Tomas Lizeoaren sorreran parte hartu zuen, Mitxelena, Lasarte eta, bereziki, lagun hurkoa zuen Joxe Miguel Zumalaberekin batera. *Santo Tomas Lizeoa* izena emazteak, Blancak, asmatu zuen, «santu horren izenarekin ez dute pentsatuko euskal gauzetan zabilzatenik». Ikastola hori bigarren hezkuntzako lehenengo ikastetxe euskalduna izan zen, oso urrats handia

euskararen historian. Hura sortzeko bazen lege arazorik. Haiek saihesten izan zuten nahikoa lan sortzaileek. Halaxe azaldu zuen Santamariak: «Guk formula hau hartu genuen, legeak *Segunda Enseñanza*-n ikuskapenik eskatzen ez zuelako. Akademia libre baten gisakoak ginen eta ikasleak azterketak egitera institutura joaten ziren. Era honetan ikuskapenik ez genuen, horixe zen inportantea, hau da, nahi genuena egin genezakeen ordutegiarekin, metodoarekin eta abar. Baina zein ikara gurea, egun batez ikuskaria agertu zenean!(...) horma dena kartelez eta, pentsa, mundu guztia zalapartaka. Nondik demonio dator ikuskari hau?... gertatu zen guk *ingreso* zelakoa ematen genuela eta guk ez genekiela *ingreso* hori *Enseñanza Primaria* zela eta ikuskapena zeukala. Joxe Miguel Zumalabek egin zion harrera. “Veo que tienen ustedes ahí

unos textos en vascuence” eta horrela hasi zen, etxea ikusi eta bazihoanean. “Si, porque nosotros...” Zumalabek ez zekien nondik irten, “me ha gustado muucho” besteak, “porque yo soy valenciano y en mi casa todos hablamos en valenciano”. Alegia, gu dardara batean eta, begira nondik, ikuskaria geure aldekoa suertatu».

Santamariak sari eta omenaldi ugari jaso zituen bere bizitzan zehar, azken urteetan batez ere. Aipaturik daude Frantziak emandako ohorezko legioa eta unibertsitatearen *Doctor Honoris*



Euskaldunon Egunkariak Santamariari emandako azken agurra. 1997ko abenduaren 30ean zendu zen Karlos Santamaria.

Causa. Hauei Eusko Ikaskuntzak emandako *Manuel Lekuona Saria* gehitu behar zaie. Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako seme kuttun egin zuen eta Donostiako Udalak urrezko domina eman zion.

Bestalde, Euskaltzaindiako urgazle izendatu zuten 1964an eta 1993an, euskararen alde egindako lan handi horren ordainean, Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain egin zuen.

Jose Miguel Zumalaberren izena sarritan agertu da lan honetan. Ezin bestela izan, bien arteko adiskidetasuna ezagututa. Gogoratzen dut hura hil zenean Karlosek bere lagunik handiena hil zela idatzi zuela. Ordura arte, egunero bere lagun hurkoarekin goiza eman ohi zuen hari eta honi buruz hizketan.

Karlos Santamaria 1997ko abenduaren 30ean hil zen, 88 urte zituela. Azken urteak bere familiarekin eman zituen osoki, beste jarduera guztiak alde batera utzita, bere emazte Blancaren ondoan bereziki. Blancaren garrantzia gutxitan aipatu da, baina ezagutzen dugunok itzela izan zela badakigu, bizitzaren bidean, urrats guztietan, zegokion lekuan izan baitzen beti, ekintzetan parte hartuz, Karlos Santamaria zenaren ondoan.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Xabier Andonegi.*
- *Karlos Santamariaren senitartekoak.*
- *Euskaldunon Egunkaria.*
- *HABE.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2000ko abendua
Ale-kopurua:	2.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	Rali, S. A. Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)
Inprimaketa:	Estudios Gráficos Zure, S. A. Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	84-457-1616-6 (Obra osoa) 84-457-1619-0
L.G.:	BI-3085-00

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística